



8. AKTA

EZOHIKO UDALBATZA, 2005eko ekainaren 3an izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta bosteko ekainaren hiruan.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira:

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

Jose Luis Goikoetxea Garmendia j.

Jose Manuel Anso Martínez j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j.

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a.

Mariví Roteta Mujika a.

Aitor Larrañaga Burguera j.

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j.

José Luis Mtez. de Espronceda Luiña j.

EB-IU-tik

Jesús M^a García Garde j.

Fco. Javier Pombo González j.



Horiez gain, ondoko alkate ohiak ere izan dira bertan: Roberto López de Etxezarreta jn., Bixen Itxaso González jn. eta Juan Carlos Alduntzin Juanena jn.

Ezohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du ezin etorria justifikatu Juan Ramon Gonzalez Medrano atxiki gabeko zinegotziak eta Rafaela Romero Pozo a. PSE-Eeko zinegotziak.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 18:30etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

Puntu bakarra

Udalerriari eskubidez dagozkion lurralde-mugak aldarrikatzeko eta horretarako Batzorde Berezia eratzeko akordioa (Udal Araudi Organikoaren aldaketa).

Udalbatzak aho batez, eta era berean Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47.2. artikuluan aurreikusten den gehiengoz, erabaki du ondoko mozioa akordio bilakatzea:

“Mugei buruzko auzia zalantzarik gabe garrantzi handikoa da eta gainera oraingo korporaziotik haratago doan gaia da; beraz, ikuspegi zabalagoa eman behar zaio, denboran zehar koherentziaz jokatzeko aldera.

Halaber, Pasaia eta Donostiako udalerriek mugen inguruan daukaten desadostasuna ez da kontu berria, Pasaia hiribilduaren sorreran dauzka erroak; izan ere, lurralde banaketa ez zen baketsua izan.

Udalak oso berriki izan du orain arteko korporazioek (XX. mendekoek) ezagutzen ez zuten errealitate historiko eta juridiko baten berri; Udal Idazkaritzak hasi eta Arantzadi Zientzia Elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionalen Saila eta Administrazioak garatutako ikerketen esker.

Gure iritzian egintza burutuen politika nagusitu da mugei buruzko aferean eta ez zuzenbidearena; izan ere, Udaletxe honen esku dauden txostenen arabera egun Pasaia dituen mugak ez datoz bat udalerriaren sorreran izendatu zitzaizkionekin, eta hau gure udalerriaren bidezko interesen kaltean doa.

Bestalde, mugen auzi honek gai politiko-instituzional eta hirigintzako enpresen esparrua urra dezake soziologiaren eta identitatearen esparruan sartzeko bete-betean, eta ondorioz ekar dezake Pasaiaren interesen defentsaren gaia arlo politiko-juridikotik herritarren nortasun kolektibora eraman beharra; ez baita egokia horrelako garrantzia duen zer batean herritarrak kanpo uztea.

Gai hau dela eta, lur-mugei buruz indarrean den foru arautegiak herritarren partaidetza eraginkorra aurreikusia du, bai mugen aldaketarako prozedura abiarazteko garaian eta bai hasitako prozedurak bideratzerakoan ere, eta hauetan herritarrei kontsulta zuzena edo beste era batekoa egiteko aukera ere ageri da.

Horretarako, eta alde batera utzita izendatuta dauden Batzordeen izaera berezia edota Udalak izenda ditzakeenak Gipuzkoako Udalerri Mugapeak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 18.1 art.ari jarraiki, egoki deritzogu Batzorde Berezia osatzeari, ondoren zehazten ditugun zereginak izango lituzkeena, eta Eledun Batzordeak eta gainerako Informazio Batzordeek dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

Era berean uste dugu, laster agertuko ditugun ezaugarriak lituzkeen Batzorde Berezia egokia izango litzatekeela herritarrek talde zabal eta erreferentziazko batean konfiantza izan dezaten, batzordeak jarrera bateratu eta adostutakoa heda dezan, eta halaber neurri eraginkorra eta bereziki aukerakoa izan dadin, edozein mementotan behar den egonkortasunarekin burutu ditzan ezartzen zaizkion zereginak eta egitekoak.

Testuinguru honetan, behean sinatzen dugunok egoki eta beharrezko ikusten dugu honako akordioak proposatzea UDALBATZARRARI

AKORDIOAK

- 1) Eskumena duen administrazioari salatzea guztiz aurka gaudela gure udalerriari izendatzen zaizkion mugekin. Era berean gure borondate tinkoa adierazi nahi dugu Pasaiari bere sorrerakoan ezarri zitzaizkion mugak errespetarazteko. Etorkizuneko konponbidearen ardatza udalerria eratzean ezarritako mugek izan behar dute.
- 2) Premiazko prozedurari ekitea Pasaia eta Donostia arteko udal-mugak jartzeko Batzordea osa dadin eta gure udalerriari dagozkion ordezkariak izenda ditzagun, Gipuzkoako Udalerri Mugapeak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauari jarraiki.

Halaber, eta albait arinen, dagoeneko Lezo eta Errenteriarekin eratuak dauden Udal-Muga Batzordeak sustatzeko eta bizkortzeko lana hartzea, eta hala balegokio, batzorde horietan lehendik dauden kideak ordezkatzeko bidea egitea.

- 3) Udal Araudi Organikoaren 14. art.aren aldaketari behin-behineko onespena ematea, ondoko paragrafoak erantsita:

Batzorde Berezi bat osatzen da tresna eraginkorra izan dadin gure Udalerriari mugak jartzeko lanari datxekion egitekoak eta erantzukizunak garatzeko eta suspertzeko, eta horretarako beharrezko diren azterketak, kontsultak eta informazio-txostenak egin ditzan.

Batzorde Berezi kide izango dira Udalbatzak osoko bilkuran izendatzen dituenak, hala balegokio, Pasaiako herritarrak baztertu gabe.

Batzorde Bereziaren buru Alkatea izango da eta Udal Letratua laguntza izango du. Era berean batzorde berezi horrek aldi bakoitzean behar izan ditzakeen teknikarien laguntza izango du.

- 4) Eledun Batzordearen eta gainerako Informazio Batzordeen eskumenei kalterik egin gabe, Batzorde Bereziaren zereginak honakoak izango dira:

- Udalerriko mugei buruzko egoera aztertzea eta sakontzea eta horrek hirigintza, soziologia eta sozioekonomiari dagokiela dituen konnotazioak.
- Udalari proposatzea eta gomendatzea lur-gatazkan zer estrategia komeni zaion.
- Udalerriko eragile sozio-politikoekin harremanetan jartzea.
- Komunikazio-plana egin eta udalerriari proposatzea, kanpora begira Udalaren erreferentzia izan dadin, batez ere herritarrei begira.
- Udalari beharrezko ikusten dituen azterlanak kontrata ditzan proposatzea.
- Udalak lurren auzian erabakia hartu baino lehen, galdetua izatea. Ondorioz, udalbatzarrak ez du aintzat hartuko lurren auziari buruzko ezer, aurrez Batzorde Bereziak irizpena eman ez badu.
- Argibideak ematea udal-mugei buruz noiz komeni den herritarrei iritzia emateko aukera eskaintzea, Udalak behin betiko onespena eman baino lehen.

- 5) Batzorde Bereziak bere funtzionamendurako beharrezko ikusten badu, izan dezake Elkarte eta kolektiboen lan mahaia; honen osaera eta funtzionatzeko era delako Batzorde Bereziaren erabakiko da.

6) Akordio honen 3. eta 4. puntuak hogeita hamar eguneko epean jendaurrean jartzea, interesdunen entzunaldiaren izapidearekin batera, erreklamazioak eta iradokizunak jasotzeko. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ordurarte behin-behinekoa litzatekeena behin betiko akordio bihurtuko litzateke.

7) Ondoko hauek Batzorde Bereziko kide izendatzea:

- Juan Carlos Aldutzin Juanena
- Miriam Cano Puy
- Jesús García Garde
- José Luis Goikoetxea Garmendia
- Izaskun Gómez Cermeño
- Bixen Itxaso González
- Roberto López de Etxezarreta
- Joaquin Martínez Vidal
- Jose Luis Martínez de Espronceda
- Xabier Portugal Arteaga
- Guillermo Sánchez-Berra Quintana
- Jaime Sanz Rodriguez

Pasaian, 2005eko maiatzaren 16an”.

- Aktan jasotzeko, ondokoak esan dituzte:
 - EAJko zinegotzi-taldeko eledun Jose Luis Goikoetxeak adierazi du arrazoen azalpena bera oso argia dela, udalak dituen helburuei dagokienez. Ondoren, zorionak eman ditu akordioarengatik eta eskatu du bere horretan kudeatu dadila.
 - EBko zinegotzi-taldeko eledun Jesus M^a Garcia Gardek, hil diren korporaziokideak gogoratu ondoren (Mayor, Goñi...), laster talde politiko guztiek udalean ordezkari izateko nahia azaldu du, orain bezala; izan ere, mahai honetan Badiako hautetsiak daude.
 - Pasaiaiko alkate izan zen Juan Carlos Alduntzin jn.ak ondoko adierazpena egin du:

Ya este cuerpo, que queda tan robusteado, debe perder, por su propia tranquilidad, la memoria de su pasado abatimiento y esperar impaciente a que renazca aquel antiguo floreciente estado.



Pero que para ello, y disfrutar de estas ventajas y de las que han de seguirse de su engrandecimiento, era indispensable se estrechasen,...., los vínculos de amistad, de estimación y de uniformidad entre unos y otros vecinos.

Eta ez da neuk diodana. Orain 200 urte, gaurkoan bezala, gure herrirako ezinbestekoa zen eta den erabakia hartu zuteneko plenoko San Pedroko ordezkariak esana da. Noski denen artean esandakoaren zati bat besterik ez da, neuri gaurkotasuna adierazi didana. Eta zinez uste dut, aldagaiak, garaiak eta pertsonak aldatuta, gaurkotasun handiko pasarte delatela.

Gaurkoan, 200 urte beranduago, zoritxarrez, orduko erabakia ez zela bete eta gure herriaren interesen defentsarako harresi bat eraiki beharrean aurkitzen gara. Guri, Badiako zinegotziori, erabakia beste egoera batean hartu izana gustatuko litzaiguke, baina, asko kostatzen arren, gaurko akordioa ontzat emango dugu eta honela adieraziko dugu gure bozkarekin ere.

Sekulako ahalegina egin beharrean aurkitzen gara, lehen aldia baita legealdi osoan udalbatza batean parte hartzen dugula eta ez guk honela nahi dugulako, zuen interesak defendatzeko eta geure parte hartzea oztopatzeko denok, berriz diot, denok, ahobatez honela erabaki duzuelako. Ez da gaur bata besteari mokoka hasteko eguna eta ez dugu egingo. Soilik eskaera bat, gaurkoa izan dadila, etorkizunaren eredu. Borondatea baldin badago erraza da, elkarrizketa horretarako dago eta gu horretan beti aurkituko gaituzue.

Baina nioen bezala, gaurkoa ez da horretarako eguna, izango ditugu aukerak, ziur gara.

Hilabete luzeak igaro dira lehen proposamena mahai gainean jarri genuenetik eta alferrik ez izan arren, luzeegiak izan direla onartu beharko dugu. Hala ere onerako izan daitezela, 200 urte gure herria nola osten ziguten ikusi ondoren ahuntzaren gauerdiko eztula litzateke eta.

Oso, oso inportantea da gaur hartu behar dugun akordioa. Eta ez berez zerbait inportantea erabakitzen dugulako, baizik eta gure herriaren etorkizuna bermatzeko ematen dugun urrats kualitatiboa delako. Orain 200 urte baino gehiago udalerrri honetako biztanleak zein udal ordezkariak kokoteraino zeuden hiriburuaren harrokeriaz eta handikeriaz. Ezin izan zuten gehiago jasan bere herria suntsitzen eta hiltzen zen bitartean ondokoak nola aberasten ziren ikustea. Eta gaur ere, berdintsu dakusagu eta sentimendu berdinarekin aurkitzen gara. Ezin dugu gehiago jasan. Gure herriak, gure herritarrak, geuk denak, hori baino gehiago merezi dugulakoan gaude. Eta ez gaude prest beste aukera bat alferrik pasatzen uzteko.



Gaur hemen berretsi egiten dugu orain 200 urte geure aurrekoak egin nahi izan zutena eta lortu zutena. Beste batzuk izan ziren erabaki hori errespetatu gabe, gure bizitzeko aukera lapurtu zigutenak.

Ez dezala halere kanpoko inork pentsa, ezer inposatzera gatozenik. Geurea dena defendatzera gatoz, geurea dena onartzetik etor daiteke etorkizuneko erabaki bakarra. Jakin bezate Pasaiaz iseka egiten dutenak, pasaiatarrok harro eta tinko defendatuko dugula herri bezala bizirauteko beharrezkoa duguna, ez diegula utziko, azken bi mende hauetan egin duten bezala, geure etorkizunarekin jolasten. Pasaiak eta pasaiatarrok etorkizuna, duina nahi badugu, bideragarritasuna behar dugu. Erabakitzeke eta herria berreraikitzeke duintasuna badugu; orain bitartekoak behar ditugu eta horiek gure lurraldea dena eskuratzetik datoz. Lurraldea eta nola ez bertan bizi diren herritarrak. Geure herrian bizi dira, geure herritarrak izan daitezen borrokatu behar dugu.

Azkenik, dei bat. Gaurkoa adostasunez lortu dugu, denon borondatezko parte hartzearekin. Gai honetan hasieran genion bezala asko utzi izango dugu denok, baina onartu beharko zaigu, bederen, gauden egoeran egonda, esfortzu ikaragarria egiten dugula. Hasiera hasieratik ezker abertzaleak bere eskuetan zegoena jarri du eta jartzeko prest dago. Pasaia eraikitzerakoan parte izan gara, gara eta izango gara. Ez dadila gaurkoa azken pausua izan. Geure herriko etorkizuna denon artean eraiki eta erabaki behar baldin badugu, ulertezina egiten zaigu, geure parte hartzea, era batera edo bestera, ez bermatzea. Orain gutxi berritu dugun proposamena duela hilabete asko daukazue mahai gainean. Ez ezazue ostrukak bezala egin, borondatea baldin badago, adostasuna posible da, gaurkoan baieztatuko dugun bezala.

Azpimarratu behar dugu gaurkoan hemen eta batez ere kanpoko ekitaldian, herritarrak falta zaizkigula. Izugarrizko ahalegina egin beharko dugu horiek denak inplikatzeko baina ez zaigu iruditzen modu egokienean egin dugunik. Agian azken orduko presak eta zalantzak izan dira, denon artean adostu beharreko jarduna izanik bakar batzuk egin izanak. Batek daki. Baina argi daukaguna eta hemendik aurrera geuk mahai gainean jarriko duguna, herritarrik gabe ez dagoela herria eraikitzerik eta denon beharra izango dugula ziur gaude.



Azkenik esan, hasieran aipatu baldin badugu ere, proposamenaren aldeko bozka emango dugula. Beste batzuk erabaki dute geure bozkak ez duela legezko baliorik izango. Geuretzat berdin da, herritarrek emandago agindua da, eurek emandako zilegitasunarekin egiten dugu eta arduraz jokatu. Ea hemendik aurrera beste batzuk berdintsu jokutzen duten eta geure ordezkariak bide legala har dezan pausuak ematen ditugun.

Besterik ez, Badia Plataformaren zinegotzian izenean.”

- Pasaiako Udaleko alkate izan zen Roberto Lopez de Etxezarreta jn.ak azpimarratu du atseginez hartu duela gaur egungo korporazioak alkate ohiengana jo izana Batzorde Berezian eta udalbatzar honetan parte hartzeko. Ondoren, San Pedro eta Donibane batzeko prozesuaren errepassoa egin du, Hondarribia eta Donostiarengandik banandu ondoren; horrek guztiak udalerririk bakarraren kontzientzia sortu zuen, eta Antxoko itsas-paduren lehorketaren ondoren gure Pasaia hau sortu zen.

Ondoren, azpimarratu du Vargas Poncek etorkizuna ikusteko gaitasuna izan zuela, txostena eta azterketa egin eta erregeari eskatu zionean itsasoari irabazitako lurrak eta beste barruti berri batzuk Pasaiari emateko.

Azkenik, azpimarratu du sentzibilitate ezberdineko alderdi politikoak Pasaiaren aldeko defentsan ados jarri garela, hori seinale ona dela eta joera hori Euskal Herri osora zabaldu beharko litzatekeela.

- Pasaiako Udaleko alkate izandako Bixen Itxaso jn.ak aitortu egin du batzordekide izendatzean beregan jarri den konfidantza; eta ondoren adierazi du lan honetan duen gogo eta indar guztiarekin ahaleginduko dela.
- Alkate andreak eskerrak eman dizkie guztiei Batzordea eratzeke prest agertu direlako.

Eta, beste gairik ezean, 19:00etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin